



Juan Roca, 1898.

Deskribapena

Monpaseko bateria edo Gipuzkoako Aldundiaren bateria Monpaseko lurmuturraren eremu malkartsuan dago, Uliako trenbidearen trazadura zaharretik abiatzen den bidezidor batetik sartzen da bertara. Bateria itsasertzeko gotorleku iraunkorren motakoa da, eta Donostiako itsasertza eta Pasaiaiko portua defendatzeko multzo gotortuari dagokio. Juan Roca y Estades ingeniari militarren obra hau 1898an proiektatu zen Kubako Gerraren ingurunean, eta 1908an artilleriaren pean jarri eta berritu zen. 1917ra arte, zenbait aldaketa egin dira baterian.

Bateriaren multzoa, funtsean, lau artilleria kokagunek, kuartelak, agente postuak, komandantearen pabiloiak eta estazio telemetrikokoak osatzen zuten.

Artilleria kokagunek harkaitzean zulatutako lau putzuri dagozkie. Ganga formako tunelen bidezko bi sarrera dituzte: bata 16 m-ko luzerakoa, atzeragoardiako kokagunerako, eta bestea 35 m-ko luzerakoa, abangoardiako kokaguneekin eta eskuin eta ezkerreko hegalekoekin komunikatzeko.

Kuartela (aurri egoera fisiko nabarmenean dago) atzeragoardiako artilleria kokagunera sartzeko potentaren ekialdeko hegalean dago. Bi gorputz osatzen da: gorputz nagusi angeluzuzena, 34 x 8 m-koa, eta gorputz erantsi irtena, 12 x 3,5 m-koa, zerbitzu osagarrietara zuzendutakoa. Kuartelaren fatxada nagusiari jarraitutasuna emanez, komandantearen pabiloia dago, eta ez dago agente postua zenaren ageriko egiturarik.

Estazio telemetrikoa edo tiro zuzendaritza oinplano erdieliptikokoa da, harlangaitz horma lodiz eta 1 m-ko lodierako hormigoizko estalkiaz osatutakoa. Aurrealdeko irekidura du telemetroaren zerbitzurako. Multzoak bunker erdilurperatuaren eta kanpotik harriz, lurrez eta landarediz kamuflatutakoaren forma hartzen du.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra
Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berriazko erregimena
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Elementu edo zati iraunkorrak: kontserbatzen diren hondar guztiak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: azterketa xehatu bat egingo da, arkeologikoa, behar izanez gero, zonan edozein esku hartze mota egin aurretik; azterketa hori idazten ez den artean, bateriaren ingurunea ezingo da aldatu 30 metroko erradioan.
 - D. Nahitaezko lehengoratzak: ez.